



BAIMEN INFORMATUAREN DOKUMENTUAREN (BID) EREDUA

BIDa prestatzeko honako gida honi jarraitzea gomendatzen dugu:

LEHEN ZATIA: Arduradunaren eta proiektuaren aurkezpena:

➤ Orokorra

Dokumentuan UPV/EHU ERAKUNDEAREN LOGOA jarriko da.

BERTSIOA ETA DATA: BIDaren orrialde guztiek azken bertsioaren zenbakia eta data izango dute.

➤ Ikertzaile arduraduna identifikatzea

Izen-abizenak

Saila eta ikastegia

Harremanetarako datuak: posta helbidea eta erakundearen telefono zenbakia.

➤ HBParen deskribapena

Proiektua identifikatzea: Izenburua eta finantzaketa.

HBParen laburpen motz bat, helburuak eta espero diren onurak, eta ikerketan erabiltzeko zer datu mota bilduko diren.

BIGARREN ZATIA: Klausulak

➤ Borondatezkotasun klausula

Jakinarazi behar da parte hartzea borondatezkoa dela eta ezetz esateak ez dakarrela inolako kalterik edo kontrako neuririk.

➤ Errebokatzeko klausula

Jakinarazi behar da parte-hartzaileak noiznahi erreboka dezakeela bere datuak irakaskuntzaz bestelako xede baterako erabiltzeko baimena, inolako ondorio pertsonalik izan gabe eta azalpenik eman behar izan gabe; eta errebokazioa gauzatzeko norekin jarri behar duen harremanetan deskribatu behar da (arduraduna eta harekin harremanetan jartzeko helbidea, erakundekoa).

➤ Datuak babesteko klausula

Klausula hori UPV/EHuko DBOak emango dio datuen tratamendua eskatu duen pertsonari, datuen tratamenduaren adierazpenaren erregistro zenbakiarekin batera.

Klausulan honako informazio hau azalduko da: zer datu jasoko diren, nor izango den horien arduraduna, zenbat denboraz gordeko diren, nola legitimatu den tratamendua eta zer lagapen edo transferentzia egon daitezkeen, halakorik balego. Era berean, sartzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramateko



eta ahazteko eskubideak jakinaraziko dira, baita horien xedea ere: Suntsipena-Anonimotasuna-Lagapena Kontserbazioa gero erabiltzeko-Beste xede bat. Datuen tratamenduari buruzko informazio guztia biltzen duen webgunearen helbidea ere adierazi behar da.

➤ [Doakotasun klausula](#)

Jakinarazi behar da datuen lagapena altruista dela, eta, beraz, ez dela ordainsaririk jasoko.

➤ [Ikerketaren emaitzak eskuratzeari buruzko klausula](#)

Jakinarazi behar da ikerketaren emaitzak ezagutzeko aukera dagoela eta, horretarako, ikerketaren arduradunarekin harremanetan jarri beharko dutela; arduradunaren helbide elektronikoa (erakundekoa) zehaztu behar da.

[HIRUGARREN ZATIA: Datuen tratamendurako baimen sinadurak.](#)

Informazioa emateaz eta BIDA jasotzeaz arduratuko den pertsonaren identifikazioa, data eta sinadura.

Ikasleak 18 urte baino gehiago dituenean: BIDaren ZURE DATUAK BABESTEAK puntuan deskribatutako baldintzetan bere datu pertsonalak erabiltzea baimentzen duen pertsonaren identifikazioa, data eta sinadura.

Ikasleak 18 urte baino gutxiago dituenean: legezko ordezkariaren eginkizuna betetzen duen pertsonaren (gurasoa/tutorea) identifikazioa, data eta sinadura, eta adingabearen adostasuna, identifikazioa eta sinadura jarrita.